



4 EUSKARA

2016-2017

ikasturtea hasi da Udal Euskaltegian

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiak astelehenean ireki zizkien ateak 2016-2017 ikasturteko ikasleei. Aurten 117 pertonek izena eman dute eta maila ezberdinetako 12 talde osatu dira. Bestalde, Boga metodoaren bitartez, 11 lagunek euskaltegian edo etxean euskara ikasiko dute. Euskaltegiko arduradunek gogoratu dute Udal beka-sistemari esker, matrikularen %85 berreskuratu daitekeela. Era berean, hainbat taldeetan izen-emateko aukera dagoela ere azpimarratu zuten.



EH Bilduk Okendo plaza hartu zuen asteartean. Hitzaldi, mural eta argazkia atera zuten. Asteazkenean, alderdi politikoak azokara atera ziren bozka eskatzera.

5 MUGIKORTASUNA

Bizikleta sustatzeko ekintzak gaur erdigunean

Mugikortasun jasangarriren astea dugu eta bi ekintza burutu dira gurean. DBHko ikasleei bizikletari buruzko ikastaroak eskaini zaizkie eta atzo 'Nire autorik gabeko eguna' ospatu zen. Gaur, bizikleta martxak eta bizikleten bigarren eskuko azoka izango dira Okendo plazan. Haurrek jokoak ere izango dituzte. Horretarako, gaur arratsaldean, Kale Nagusia Tajamar biribilgunetik Ola Kaleko biribilgunera itxia egongo da.

Igandean, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek Eusko Legebiltzarreko kideak erabakiko dituzte. Aste honetan zehar, alderdiek azken ahaleginak egin dituzte bozkak eskuratzeko eta kalera atera dira ekitaldi edo egitarau banaketa eginaz.

Lasarte-Oriako EH Bilduk hauteskunde kanpainako ekitaldia egin zuen asteartean Okendo plazan. Hainbat izen ziren ekintzara hurbildu ziren herritarrek.

Larraitz Ugarte eta Ander Rodriguez izan ziren hizlariak. Gizarte Zerbitzuen arloan eta Garraio azpiegiturak izan zituzten hizpide agerrialdian.

Honetaz gain, plazan zeuden umeei murala margotu

zuten lurrian eta horretan 'Egin Herri' irakur zitekeen.

Hitzaldien ostean, pintxoak dastatu eta argazki masiboa atera zuten.

Bestalde, asteazken eguerdian, Michelin enpresako atarian Xabier Olano batzarkidea eta Rebeca Ubeda legebiltzarkidea eta EAEko hauteskundetarako zerrendakidea, izan ziren arlo ekonomikoari buruz solasean.

Azoka

Era berean, alderdi ezberdinek asteazken goizean azokan egin zuten bat.

Elkarrekin Podemos, PSE-EE, EAJ eta EH Bilduko kideak ikusi ahal izan genituen haien egitarauak, egunkariak, larrosak, puxiak edo gozokiak banatzen azokan zehar. Herritarrekin ere mintzatu ziren eta haien kezak jaso zituzten.

Mahai aldaketa

Bestalde gogoratu, Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko Zumaburuko eraikinaren segurtasun arazoak direla medio, itxita dagoela.

Hori dela eta, kokaleku honetan egon ohi diren bi

hauteskunde-mahaiak, 7. eta 8. ataleko mahaiak, Biyak Bat Elkartera lekualdatu dira.

Ondorioz, mahaikide eta herritarrek erretiratuen elkartera hurbildu beharko dira igandean mahaietan egon edo botoa emateko.

Erribera kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11 zenbakietan; Zumaburu kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14 eta 16 zenbakietan; Andapa kalea 1 zenbakian; Ganbo kalea 1 zenbakian; Kale Nagusia 32, 34, 36, 38, 42, 44, 46, 60 eta 70 zenbakietan eta Ola kalea 1, 2, 4, 6, 8, 10, 12 eta 14 zenbakietan erroldatuak dauden herritarrei eragiten die aldaketa honek. Beraz, argi ibili.

Alderdiak azken bozken bila

Zumaburu ikastetxeko hauteskunde-mahaiak Biyak Bat elkartean egongo dira

www.multioplicasgipuzkoa.com

2 mō betaurreko graduatu erreflexuen aurkako leiarrekin
97€

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



Maider Segurola


Landaberrin haziak

Denok ginen hasieran norbaitenak. Gu Kontxitarenak izan ginen hiru urtez. Mariangelesenak gero; erortzeko zorian zegoen esnezko hortza ez zuen beste inork berak bezain goxo kentzen. Handitu ahala norbaitenak izatetik norbaiten gelakoak izatera pasatu ginen, harro. Begoñaren gelakoak, Abenerenak... Inoren gelakoa izateari ere uko egin genion arte. Handi eta aske sentitzen ginen. Adinari loturiko iraultza txikia.

Baina halako batean, irrastian Leteren «izotz ondoko eguzki» entzuten duzun bitartean kantuan hasi zara eta ohartu zara Jonak lehendabizi eta Marijok gero irakatsitako letra zurekin daramazula; edo hiruko erregela bat egin behar duzun bakoitzean paper muturrean Mikelek arbelean marrazten zuen irudi bera egiten duzula modu inkonzientean; edo ez zaizula sekula ahazten Hawaiioko hiriburua Honolulu dela Danik mapa mutu batean «Haguay ze guay» idatzi zuelako behin.

Konturatu gabe geurekin daramagu bakoitzaren zerbaite. Dabidekin egindako antzerki eta deklamazioak; «lenguaje» deitzen genion horretan Txarok edo Elenak irakatsi eta zertarako ziren ere ez genekizkien aditz pluskuanperfektoak; edo tximinoarena eginez Julenek azal dutako «monkey» hitza,... Horiek ere ez zaizkigu geroztik ahaztu. Eta gogoratzen hasita burura datozkit Lourdes eta Josu eta Ramon eta Juan txoferraren puntualtasuna eta pasilloetan gurutzatu eta Joan edo aita, nola deitu oso ondo ez nekienekoa, eta Josune, Pako,... denak Imanolen etxean. Gure etxean.

Zorion agurrak



Unax

7 urte zoragarri zurekin! Asko maite zaitugu, pottoko! Oier, Maddi, amatxo eta aitaxo.



Iñaki, Pili eta Nahia

Zorionak hirukote!! Kafek eta infusioak zuen kontu!!! Zuen egunak ongi igaro izana espero dugu!!! Ttakuneko lankideak.



Joshe

Zorionak zure lagunentzat!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48,
txintxarri@txintxarri.eus edo
txintxarri.eus web orrialdeko
 formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Hernaniko Saretxo-Txiki golfa traspasatzen da. Aukera ona. 679 680 465.
- Pisukideak bilatzen dira. Jende gaztea eta langilea. Pisua Lasarteko erdialdean dago, logelak handiak eta argitsuak dira. Sartzeko prest. Alokairua 250 euro gehi gastuak izango litzateke. Informazio gehiago, deitu edo whatsapp bidali 656 772 201, Ana.
- Pisu txiki bat hartuko nuke alokairuan bi pertsona adinduentzako Lasarte-Oria erdi aldean. 6 bat hilabetetarako gutxi-gorabehera. Berehala joateko moduan egotea eta igogailua portaletik etxeraino izatea ezinbestekoa da. Harremanetarako dei ezazu 685 723 741 edo 663 751 613 telefono hauetako batetara.

Salerosketak

- Haur jaioberriarentzat 'Baby home dream' hondar koloreko sehaska txikia (100 euro) eta 'CabrioFix' Maxi Cosia (100 euro) salgai ditugu. Egoera oso onean daude. Aitor, 648 102 799.

Lan eskaintza

- Goiegi jatetxean astean ordu batzuk lan egingo

lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzailerak: Euskalduna eta bezeroari arreta-zerbitzua emateko gogoa duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketako zenbait lan ere egin beharko ditu. Interesa dutenek jatetxera hurbildu daitezela curriculumarekin.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edo haur, zein adinduen zaintza egiteko. Orduka, interna edo externa. Paperak ditu. 637 289 459.
- Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068.
- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanetarako. Externa eta orduka. 671 763 558.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan, externa moduan edo orduka lan egiteko. 674 901 599.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048.
- Interna, externa modura edo orduka lan egiteko prest nago. Garbiketarako edo pertsona adinduen zaintzan. 671 763 558, Lidia.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Marco Mancera Piñero, irailaren 17an.



Heriotzak

- Brigida Fernandez Ruiz, irailaren 19an, 85 urte zituela.
- Ana Santos Enriquez, irailaren 16an, 91 urte zituela.
- Arantza Arruti Borda, irailaren 16an, 67 urte zituela.
- Izaskun Arzallus Arocena, irailaren 16an, 53 urte zituela.
- Teofilo Gonzalez Tejerina, irailaren 15an, 83 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 23 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 24 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 25 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 26 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 27 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 28 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 29 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
 Urrutia, Etxeberri auzoa I
 Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 20160 Lasarte-Oria
943 371 448
 G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
 ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre,
 Iñigo Gonzalez, Maddi Noniega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
 Ane Labaka, Mailu Arruti,
 Asier Odriozola, Maider Segurola,
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
 Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GIZARTEA

Sexu informazio eta aholkularitza

Gaztelekuan ostegunetan eskainiko da ikasturte honetan ere zerbitzua

Gaztelekuan sexu informazio eta aholkularitza zerbitzua martxan da. Ostegunero 18:00etatik 20:00etara aukera izango dute gazteek sexualitatearen inguruan dituzten zalantzak edo kezka argitzeko. Aurreko ikasturtean 159 erabiltzaile izan zituen bulego honek eta egindako hiru ikastaroetan parte hartzaile kopurua ona izan zen.



Herriko gazteentzako zerbitzu eskaintza zabala egin nahi du Gaztelekua.

TXINTXARRI

Berriro ere martxan dago gazteentzako sexu informazio eta aholkularitza bulegoa Udaletik jakitera eman denez.

Bi urte dira zerbitzu hau Gaztelekuan martxan jarri zela Emakumeen Zentroan eskaintzen denaren osagarri moduan.

Ostegunero 18:00etatik 20:00ak bitartean, sexualitatea landuko da gazteekin modu irekian. Aurreko ikasturtean Udalak adierazi duenez, 159 gazte erabili zuten zerbitzua hainbat kontsulta egiteko.

Lehenengo ikasturtean 120 izan ziren bulegotik

pasa ziren gazteak beraz erabiltzaile igoerarekin pozik azaldu da Udala. Gazteentzako sexu informazio eta aholkularitza bulegoa 2014ko irailean jaio zen, sexualitatearen inguruko kontsultak argitzeko Emakume Zentroan ematen den zerbitzuari jarraipena emanez.

279 kontsulta

Bi urtetan guztira 279 kontsulta izan dira jaso direnak eta gaiak dagokionez, denterarik izan da. Hala ere, ohikoak izan dira; nola ligatu, zer egin mutil edo neskek erakartzeko, zenbat

antisorgailu mota daude, zer gertatzen da kitzikapean edo orgasmoan, nola lortu bikote harreman zoriontsuak, lehenengo aldiaren mina, zein adinetan aproposa den sexu harremanak edukitzea, kondoiaren eskaera ere egin da eta harremanei buruzko aferrak galdetu dira, besteak beste.

Intereseko tailerrak

Kontsultez gain, hiru tailer ezberdin antolatu ziren aurreko ikasturtean zehar Gaztelekuan bertan hainbat gai lantzeko eta "arrakasta eta erantzun ona eduki

zuten hirurek". Lehenengo apirilaren 1ean egin zen. 'Drogak eta efektuak sexualitatean' gaia landu zen eta honetara 20 mutil azaldu ziren.

Ekainaren 9an 'Youtuberak eta matxismoa' izan zen hizpide eta 12 neska eta 3 mutilek parte hartu zuten. Azkenik, ekainaren 24an, herriko jaien aurretik, egindako 'Alkohola, jaiak eta mutil eta nesken kuadrillak' 20 mutil eta 10 neskaen parte hartzea izan zuen.

Udaletik espero dute ikasturte honetan zerbitzu honek oraindik gazte gehiago erakartzea.

KATEKESIA

San Pedro elizako katekesi saioak

Urriaren 1a, larunbata San Pedro elizan katekesiko kurtso berriari hasiera emango zaio.

Katekesiko arduradunek azaldu dutenez, lehen hezkuntzako lehenengo mailan dauden haurrek izena eman behar dute, lehen Jaunartzea hartzeko beharrezkoak diren 3 urteak egiteko. Saioak hileko lehenengo larunbatean eta hirugarren larunbatean izango dira, 11:00etan. Izen-ematea urriak 1ean, goizeko 11:00etan San Pedro elizan egingo da.

Gainontzeko mailak honako ordu eta egunetan agertu beharko dira: bigarren mailako gaztetxoak hileko bigarren larunbatean eta laugarren larunbatean, 12:00etan eta hirugarren mailakoak hileko lehenengo larunbatean eta hirugarren larunbatean, 12:00etan.

DANTZA

Plaza dantzaren inguruko bilera 27an

Ttakunek antolatzen duen plaza dantza ikastaroari hasiera emateko, aurreko urtean parte hartu eta jarraitu nahi dutenekin zein kide berriekin, bilera egingo da irailaren 27an astearte, 20:00etan Sasoetako gimnasioan. Aurreko urtean bi talde osatu ziren, bata hasi berriei zuzendutakoa eta bestea beteteranoekin. Aurtengoan ere, ikusi nahi da zein maila eman behar diren eskaeraren arabera. Interesa duten herritarrei deia luzatzen zaie honetan parte hartzeko.

IKASTAROA

Jantzi tradizionalen ikastaroan izena emateko aukera

Jantzi tradizionalen bi ikastaro antolatu ditu Ttakun kultur elkarteak urrian eta azaroan. Saioak astearte eta ostegunetan izango dira Emakumeen zentroan 15:30etik 17:30erako ordu-tegian. Dagoeneko izena emateko aukera dago Ttakuneko bulegoan. Elkarteko bazkideek 22 euro eta ez bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago eskuratu edota izena emateko, 943 371 448 zenbakira dei daiteke.

Merkataritza indartu eta aktibatze hitzarmena

Lehengo asteko ostiralean, Aterpea Merkataritza-elkartean eta Lasarte-Oriako Udala- ren arteko 2016 urteko hitzarmena sinatu zen.

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak eta Aterpeko lehendakari Ramon Ormazabalak sinatu zuten hitzarmena. Helburua gure herrian merkataritza aktibatu eta indartzea da. Udalak eta Aterpea elkarrekin aurten antolatu dituzten edo aurrera eramango dituzten jardueratarako markoa da eta 10.000 eurotako finantzazioa du.

Udalak jakitera eman duenez, Hitzarmenak Merkataritza eta Ostalaritza Aktibatze Planaren eta Merkataritza Biziberritze Plan Bereziaren balio-aldia mantentzen ditu.

Konpromisoak

Lasarte-Oriako Udalak hona-



Alkatea eta Aterpeko lehendakaria hitzarmena sinatzen. L-O UDALA

koa hitzartu du: Aterpearen protagonismoa indartzea; Teknologia berrietan eta komunikazioaren talde formatzeko plana prestatzea; Marketineko aholkulari baten bitartez, banakako aholkularitza eskaintzea; Aterpeko era-

kusleihoetan interes lokalek ekintzen zabalkundea sustatzea; Aterpeak 'Merkataritza biziberritzen' egitasmoan eta 'Tratu on bat' markaren eta haren webgunearen promozioan aktiboki parte har dezan sustatzea eta azkenik,

Udalak Aterpeari bizitza komertzialari eragiten dioten ekimen berrietan parte hartzeko proposatuko dio.

Honetaz gain, bazkide berriak erakartzeko elkarrekin kanpaina bat bultzatuko dute. Honen barruan, urtebetez Aterpeko kuota finantzatzeko du Udalak.

Aterpeak, aldiz, 2016 urtean honako ekintza hauek egitera konprometitu da: Ardo-dasta Eguna, Sagardopote Eguna, Hipodromoaren Menduaren Ospakizuna, Udaberria Eguna, Santa Anako pintxoaren kanpaina, Stock Azoka, Bezzeroaren Hamabostaldia, Pintxo Gastronómicoaren Ibilbidea, 'Black Friday' eta Eguberrieta-ko Kanpaina.

Era berean, bazkide berriak lortzeko mailinga ere egin beharko du merkataritza elkarteak.

Udal euskaltegiko ikasturtea abian

117 ikaslerekin hasi du ikasturte berria zerbitzuak

Udal Euskaltegia martxan da. Aurtengoan 117 ikaslerekin hasi du ikasturtea, 12 talderekin. 106 ikasleez gain, 11 lagunek izena eman dute autoikaskuntza ikastaroan. Ikasturtea hasi arren, oraindik maila ezberdinetan taldeak osa daitezke.

TXINTXARRI

Udal Euskaltegiak ere hasi du ikasturte berria. Jon Antxordoki Euskara zinegotzia Pili Galan euskaltegiko zuzendariarekin izan zen ikasturte hasierako agerraldian.

Honetan ere hainbat ikasle parte hartu zuten. Hasierako egunetan landutakoarekin pozik eta ikasturte berriari gogotsu ekiteko prest azaldu ziren.

Guztira 117 ikasle dira aurtun herriko Udal Euskaltegian arituko direnak. 12 talde osatu dira eta horien artean 4 talde goizez, 4 arratsaldez eta beste 4 iluntzean arituko dira.

Taldeetan dauden 106 ikasleez gain, 11 lagunek izena eman dute autoikaskuntza ikastaroan. Ikastaro hori, euskaltegira joan gabe gauzatu daiteke Boga metodoaren bidez.

Honek euskaltegiko zuzendariak azaldu zuenez, "herritarren artean interesa piztu du baina emaitza onak lortzeko autodisziplina handia eskatzen du".

Jon Antxordokik esan zuen "iazko zenbakien antzekoak dira aurtun lortutakoak eta honek esan nahi du, helduen euskalduntzeari bultzada berri bat eman diogula gure herrian. Oso gustura gaude ikasturtea horrela hasi izanagatik".

Izena emateko aukera

Agerraldian aipatu zenez, ikasturtea hasi den arren, interesatua dagoen edonor bertara daiteke eta bakoitzak daukan mailari dagokion taldera erantsi lekua egotekotan.

Hasierako mailako taldeak daude eta EGA prestatzeko mailaren inguruan daudenak dira gehiago. Aukera egotekotan, autoikaskuntza sistema-



Euskaltegian egin zen asteartean ikasturtearen aurkezpena.

ren bidez ikasteko eskaera ere egin daitekela azpimarratu dute.

Bestalde, arduradunek gogoratu nahi izan dute Udalak indarrean duen beka-sistemarekin %85eko asistentzia betez gero, matrikularen %85 berreskuratu dezakeela ikasleak ikasturtea bukatzerakoan.

Euskararen 9. Maratoia

Jon Antxordoki Euskara zinegotziak esker oneko eta animo hitzak izan zituen ikasleentzat agerraldiaren amaieran.

"Zorionak emandako pausoagatik eta ikasitakoa kalean erabiltzera animatzen zaituztet".

Horrekin batera, aukera

baliatu, eta gogoratu zien Euskararen 9. Maratoia izango dela urriaren 22 eta 23an gurean eta euskararen jai erraldoi honetan prestatutako egitarauaz gozatzea animatu zituen.

Horrekin batera, 40 eguneko erronkak parte hartzaileak behar dituela ere esan zien.

'Konturatzeko euskaraz' lelopean hasi da Solaskide kanpaina

Solaskide kanpaina abian da. Orain bai, modu "ofizialean" hasiera eman zaio Solaskide egitasmoan parte hartzeko izena emateko aukerari.

Euskal Herriko herri eta hiri ezberdinetan gauzatzen da egitasmo hau Euskaltzaleen Topaguneak gidatuta.

Herrian Ttakun kultur elkarte arduratzen da hau aurrera eramateaz eta urtetik urtera gero eta gehiago dira izena ematen duten herritarrek. Aurtengo leloa 'Konturatzeko euskaraz' da.

Funtsean euskaldun berriak eta zaharrak elkartu eta solasaldirako tarte eskaintzen duen ekintza da solaskide. Euskaldun berriei euskaltegiatik kanpo euskaraz aritzeko aukera ematen die.

Naiara Mujika da arduraduna eta honek azaltzen duenez, "ikasturte berria ate joka dugu, udarako ajeak alde batera utzi eta ohiko zereginetara bueltatzea tokatzen zaigu. Baina egunerokotasun honetan ere,

badira tarte atsegin bat pasaz, disfrutatuz eta mingaina astinduz ondo pasatzera eramaten gaituzten egitekoak ere, kasu honetan, Solaskide programa berri ere martxan dugu".

"Urteetan egitasmoan parte hartu duten kide batzuk badaude baina era berean, badira ere gogoekin izango diren lagunak eta lehenengo aldiz esperientzia aberasgarri honetan parte hartuko dutenak. Beraz, bai urteetako solaslagunei eta baita berriak zareten horiei ere, izena eman eta egitasmoan parte hartzera animatzen zaituztegu".

Euskaldun berriekin elkartuko diren euskaldun zaharrak ere beharrezkoak direla azpimarratzen du Mujikak.

Ekimenean izena emateko edota informazio gehiagorako Ttakun kultur elkarte ekoiztatik pasa edota kultura@ttakun.eus edo 695 785389 telefonon harremanetan jarri daiteke.

Behin izena emanda, elkarriketa labur bat egingo zaie parte hartzaileei euren euskara maila zein den jakiteaz gain, pixkat gehiago ezagutzeko. Horrela taldeak osatzeko garaian, koordinatzaileak afizio antzekoak dituztenak elkarrekin jarriko ditu.

Talde batzuk kafe baten inguruan elkartzen dira beste batzuk ibiltzera joaten dira eta hartara ariketa pixkat egiten dute... Talde bakoitzak erabakiko du aste-eroko hitzordua non eta nola gauzatu nahi duen. Helburua euskaraz hitz egitea da eta euskaldun berriari aukera eman euskaraz harreman sare berria eraikitzea.

Aurkezpenak

Solaskide programa zer den azaltzeko AEK Muntteri eta Udal euskaltegian aurkezpenak ere egingo dira datozen asteetan.

Ikasturteari hasiera emateko ere prestatuko dute zer bait. Urriaren 30 arte irekia izango da izena emateko aukera.

solaskide.

KONTURATZERAKO EUSKARAZ.



Izen-emate epea: Urriaren 30a bitarte

Ttakun kultur elkartearen: Geltoki kalea, 4 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Sustatzaileak



Kanpaina iragartzeko kartela zabaldu du Euskaltzaleen Topaguneak.

Bizikletaren erabilera sustatuz

Mugikortasun astea dela eta, gaur arratsaldean Kale Nagusia itxita egongo da

Mugikortasun jasangarriaren Europako astea dugu honakoa. Hainbat ekintza izan dira astean zehar, gaur Okendo plaza izango da protagonista. Haurrek jolasak eta bizikleta martxak izango dituzte; bigarren eskuko bizikleta azoka ere izango da bertan.

TXINTXARRI

Europa mailan antolatzen den Mugikortasun astea martxan da Lasarte-Orian. Asteartean hasi eta gaur amaituko da Lasarte-Oriako Udalak Aztikerrekin elkarlanean antolatutako egitaraua.

Aurten bizikletaren erabilera sustatu nahi izan dute. Horregatik, astearte eta asteazkenean, Lasarte-Oriako DBHko ikasleek bizikletaren erabilerari buruzko ikastaroak jaso zituzten.

Aztikerreko teknikariaren azalpenak eta gomendioak adi entzun zituzten gazteek eta haien galderak egiteko tarte ere izan zuten.

Atzo, 'Nire autorik gabeko eguna' ospatu zen Lasarte-Orian eta Muittu Manttagorriren zerbitzua doakoa izan zen.

Haurrentzat ekintzak

Gaur, azkenik, hiru ekintza ezberdin izango dira.

Kale Nagusian 'Kalea Jolaserako' ekimena izango da 16:30etik 19:30era. Haur eta gaztetxoek bizikleta jolasez,

segway zirkuituz eta herri kiroletaz gozatuko dute. Honetarako Kale Nagusia itxiko da.

Bestalde, Okendo plazatik aterata bi bizikleta martxa egingo dira herriko bidegorri sare eta hainbat bideetatik zehar.

6-11 urte bitarteko gaztetxoek bide motza egingo dute, 16:30ean. Erdialdea eta Atsobakar inguruko bideetatik barrena izango da.

Ordu erdi beranduago, berriz, 12 urte baino gehiagoko gaztetxoek txanda izango da. Hauek bide luzeagoa egingo dute, Lasarte-Donosti bidegorria edo Plazaolako trenbidetik. Ibilaldia amaitzean oroigarri bat jasoko dute.

Azkenik, bigarren eskuko bizikleta azoka izango da, 16:30etik 19:30era, Okendo plazan.

Herritarrek bizikletak eta honekin zer ikusia duten objektuak saldu eta erosi ditzakete. Hauek azoka ireki baino ordu t'erdia lehenago utzi beharko dira plazan.



Astearte eta asteazkenean, DBHko ikasleek adi jarraitu zituzten bizikleta ikastaroko azalpenak.



Manttagorri hiribuseko zerbitzua doakoa izan zen atzo, 'Nire autorik gabeko egunean'.

ARGENTINA



IPARRÉTIK HEGORA. AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

Erreserbak eta informazioa bulegoan



NOAO BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com



LABURRAK.-

Garaipen eta porrot bana liga hasi duten Ostadar SKTren saskibaloit taldeentzat

A1 ligako Errendimenduko Junior zein Kadete taldeak iragan asteburuan hasi ziren konpetitzen. Juniorrek Udal Kiroldegian jokatu zuten, Ordiziaren aurka: 46-44 irabazi zuten, eta bikain ekin diote ligari. Ander Otaegik eta Beñat Eleiceguik zuzendutako taldeak gogotik izerditu behar izan zuen aurreneko bi puntuak poltsikoratzeko.



Kadeteek Miramar Hondarribia taldeari egin zioten bisita, Hondartza kiroldegian. Beti bezala kantxan dena eman arren, 72-38 galdu zuten.

Babyauto Zarautzek ezin izan zuen Uribealdea mendean hartu (17-13)

Ohorezko B mailan ari den Babyauto Zarautz taldeak ezin izan zuen garaipena erdietsi ligako lehen jardunaldian. Phil Huxford-en jokalariek Uribealdearekin neurtu zituzten indarrak, etxetik kanpo; 80 minutuetan zehar lehia bizian aritu ziren bi taldeak, baina azkenean talde bizkaitarrak lortu zuen garaipena, 17-13. Hainbat herritar aritu ziren talde zarautzarrarekin lehiatzen: David Vega zein Ander eta Xabier Rekondo anaiak hasieratik, eta bigarren zatian Julen Aristorena. 14 urtez azpikoek, berriz, 50-0 hartu zuten mendean Bera-Bera.



Ostadar Antonio Aroztegiak 2-3 galdu zuen Oiartzunen aurka, lehenengo jardunaldian

Beste denboraldi batez, Ostadar Antonio Aroztegiak areto-futboleko 3. Nazional mailan lehiatzeari ekin dio. Ez modu onenean, ordea. Oiartzunen aurka jokatu zuen Udal Kiroldegian, baina ezin izan zuen punturik poltsikoratu, Josean Jimenezek zuzendutako taldeak 2-3 galdu baitzuen derbi gipuzkoar horretan.



Lehenengo zatia oso paretsua izan zen eta inork ez zuen golik sartzerik izan. Bigarren zatian bai, ordea. Oiartzun 0-2 aurreratu zen,

40. eta 43. minutuetan sartutako gol pare bati esker. Atezain-jokalaria atera ostean, Ostadarrek berdindu egin zuen norgehiagoka, eta 3-2koa sartzeko aukera ez baliatu ostean, kontraerasoan, 2-3koa eskuratu zuen Oiartzunek.

Raul Gomez Margallo hirugarren izan zen Usurbilgo Baxurde Krosean

Herriko lasterkari Raul Gomez Margallo podiumera igo zen iragan igandean jokaturako Usurbilgo Baxurde Krosaren IX. edizioan. 10 kilometroko ibilbidea osatzeko 35:04 minutu behar izan zituen. Iñaki Garcia usurbildarra gailendu zen, 34:47ko denbora eginez. Gomez Margalloz gain, Lasarte-Oriatik joandako beste 23 lasterkari zeharkatu zuten proba horretako helmuga-lerroa.

MARATOIA.-

42 kilometroz korrika Berlinen

Aitor Otamendi eta Mikel Villarroya Maratoian ariko dira

Igande honetan jokatu den Berlingo Maratoiko irteera-lerroan bi lasterkariatar egongo dira: Mikel Villarroya eta Aitor Otamendi. Lehenengoak lasterketa amaitzea du xede; bigarrenak, Donostian egindako 02:57ko marka hobetu nahi du. Gaur abiatuko dira bi lasterkariak, berehalakoan ahaztuko ez duten esperientzia bat bizitzera.



Ezker-eskuin, Aitor Otamendi eta Mikel Villarroya.

A. OTAMENDI/M. VILLARROYA

IÑIGO GONZALEZ

New York orain dela bi urte, eta Berlin aurtzen. Donostiakoa ere bai, behin baino gehiagotan. Aitor Otamendik makina bat maratoi eginak ditu honezkero. Alemaniako hiriburura helburu zehatz batekin doa: lehenengo urtean Donostian egin zuen 02:57ko marka hobetzea. "Proba azkarra da, markak hobetzeko aproposa; New Yorkekoa askoz ere aldapsuagoa zen", oroitzen du.

Berlingoa izango da lehenengo maratoia Mikel Villarroyarentzat: "Beti eduki dut probatzeko gogoia; lasterketa bukatzea eta gozatzea dira nire xede nagusiak. Jakin dut ez daukala aldaparik; horrek mesede egiten die lasterkariei, nire iritziz".

Hiria ezagutzeko aukera

Bi lasterkariak ez dira sekula Berlinen egon orain arte. Aste honetan ezagutzeko dute.

Egun berean abiatuko dira bi herritarrek: gaur bertan. Otamendi familiarekin doa, eta Villarroya, berriz, pare bat lankiderekin.

"Lankide batzuen artean komentatu genuen Berlinera joateko aukera, esperientzia oso interesgarria izan zitekeelakoan. Abenduan, jakin genuenean lasterka egiteko hautatuak izan ginela, berehala hartu genituen plazak lankide batek gomendatutako hotelean", dio Mikelek. Igandean lasterka egin ostean, hurrengo ostiralerara arte geratuko da Berlinen.

Aitor familiarekin batera joango da. Kontatu digunez, apartamentu bat alokatu dute. Berak ere asmoa dauka Berlingo egonaldia luzatzeko: datorren asteko larunbatean bueltatuko dira herrira. Ez da aitzakia txarra Alemaniako hiriburua ezagutzeko. Herritarrek zehazten duenez, familiarikoen babesa eta animoak sentitzeak asko laguntzen du lasterketak iraun bitartean.

Prestaketa

"Ongi prestatuta" joango da Aitor Berlinera: denera 1.400 kilometro inguru pilatu ditu hanketan. Eta hori, aintzat hartuta abduktore-haustura bat izan zuela urte hasieran. "New York baino bi hilabete lehen-

go jokatzeko da Berlingo maratoia; nahikoa entrenatuta noala uste dut".

Mikelek aipatu digu goizean goiz eta iluntzean entrenatu ohi duela: "Lanetik atera izan naiz goizeko seietan, eta orduan joan korrika egitera, afalostean beste batzuetan... Bi haur dauzkat, adin txikikoak, eta hori uztartzea ez da batere erraza izaten".

Biek hausnarketa bera egin dute: "Beti nahi izaten duzu gehiago entrenatu, baina tira".

Berlin eta gero, Aitorrek Behobia egingo du, eta Donostiako Maratoira ere bai, agian.

Mikelek ere izena emana dauka Behobian, baina ez daki egingo duen ala ez; Berлиндik nola osatzen den ikusi nahi du.

Mikel Ormazabal, joan ezinik

Berez, Lasarte-Oriako hiru lasterkariak eskuratu dute dortsala aurtengo Berlingo Maratoian parte hartzeko. Mikel Ormazabal da hirugarrena, baina kazetari gisa lan egiten duenez, eta igandea hauteskunde autonomikoen eguna izaki, lan egin behar du egun horretan. Beste batean izan beharko du.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 24

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Alerru KJKE
Jubenilen Ohorezko maila,
2. jardunaldia.

Michelin, 19:00etan

Ostadar SKT - Anaitasuna
Erregionalen Ohorezko maila,
3. jardunaldia.

Herrera, Donostia, 19:30ean

Asoleus CF - Texas Lasartearra
Erregionalen Igo maila,
2. jardunaldia.

Igandea 25

Berio, Donostia, 13:30ean

Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT
Emakumezkoen Territoriala, 1go jard.

PILOTA

Ostirala 23

Michelin pilotalekua, 20:15ean

Intza KE - Gazteleku
Seniorren 3. maila, 2. jardunaldia.

Larunbata 24

Gurea pilotalekua, 10:00etan

Azkoitia - Intza KE
Seniorren 1go maila, 2. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa,
1go jardunaldia.

Ostirala 23

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Reformas Lagunak - Also Taberna

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Ibaros Latino - Kebab Taberna

Larunbata 24

Michelingo kirol-gunea, 9:30ean

Aita Mari Taberna - Viña del Mar

Michelingo kirol-gunea, 10:30ean

Urdaneta HK - Ilargi Taberna

Michelingo kirol-gunea, 11:30ean

Kattagorri Insausti - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 12:30ean

Indaux - Txoko Taberna

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Cecilia Ostadar - Isu Leihoak
Gipuzkoako 1go maila, 1go jard.

Txurdinaga kiroldegia, Bilbo, 18:00etan

Otxartabe CD - Ostadar Antonio
3. Nazionala, 2. jardunaldia.

SASKIBALOA

Larunbata 24

Karela kiroldegia, Orrio, 16:00etan

Zast Orrio - Ostadar SKT

Errendimenduko juniorrak, A-1 liga,
2. jardunaldia.

Igandea 25

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Easo 02

Errendimenduko kadeteak,

1go jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 24

Asti, Zarautz, 17:00etan

Babyauto Zarautz - Real Oviedo

Seniorren Ohorezko B maila,

2. jardunaldia.

Agenda

Gaur, ostirala, Aterpeako hainbat denda



Pagotxak aurkitzeko aukera

Aterpea Merkatarri elkartearen hamar dendek haien stock-a aterako dute kalera. Merceria Aritza, Bazar Abreu, Alba Moda, Merceria Olmi, Urruzola mertzeria, Iturbe, Complementos Alda, Kattagorri Jolas, Donna Boutique eta Ola enmarcaciones dendetan aurreko denboraldiko produktuak egongo dira salgai, prezio onean.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Asteazkena 28, 18:00etan
'Biolin Magikoa' antzerkia eskainiko da. 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzendua.

ANTONIO MERCERO ARETOA
Urriaren 1era arte. Astean zehar, 17:30etik 20:00etara. Larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara.
50 urte hauetako argazki eta ikasleen eskulanak bildu dituzte 'Landaberri, oroimenaren basoa' erakusketan.

Aste Kulturala
SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Astelehena 26, 20:00etan
Aste Kulturalaren hasiera, ohorezko ardoa eta luncha. Elkarteko dantza eta abesbatzak girotua.

Astearte 27, 19:30ean
Mus txapelketa.

Asteazkena 28, 19:30ean
Tute txapelketa.

Osteguna 29, 19:30ean
Dardo lehiaketa eta Mus eta Tute txapelketetako finala.

Usurbil

Bizipozaren jaia
FRONTOIA, DEMA PLAZA
ETA MIKEL LABOA PLAZA
Igandea 25, 10:00etatik 18:00etara
Bizipoza Elkarteak eta Usurbilgo hainbat eragilek Bizipozaren Jaia antolatuko dute. Bizipoza Elkarte osatzen duten elkarten topaketa, 'Amalur' ikuskizuna, jolasak, antzerkiak, puzgarriak, tailerrak, musika...

Lasarte-Oria

Mugikortasun astea

Gaur, ostirala
KALE NAGUSIA
16:30etik 19:30era, 'Kalea Jolaserako' ekimena: bizikleta jolasak, segway zirkuak, herri kirolak...

OKENDO PLAZA
16:30ean eta 17:00etan, bizikleta martxak.
16:30etik 19:30era, bizikleten bigarren eskuko azoka.

Landaberri 50. Urteurrena
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Gaur, 22:00etan
'Bertso berriak Landaberrin ibilitakoek

jarriak' bertso-saioa izango da. Bertsoekin tartekatua musika eta antzerkiak izango dira.

ANDRE JOAKINA ENEA
Larunbata 24, 09:00etan
Ikastolako eraikinak eta historia gogoratuz ibilaldi komentatua egingo da.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 10:30ean
Haur jolas eta puzgarriak.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 12:30ean
Kantu Jira Txikia Xumela koruarekin.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 17:00etan
Magia ikuskizuna Eriz magoaren eskutik.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 22:00etan
Rock Kontzertua.

MICHELINGO KIROL GUNEA
Igandea 25, 10:00etan
Ikasturte ezberdinetako taldeen arteko Euskal Olinpiadak.

MICHELINETIK OKENDORA
Igandea 25, ondoren
Poteoa txarangarekin.

VILLA MIRENTXU
Astelehena 26, 18:00etan
Bea Egizabal eta Cesar Marcosek zuzendutako ipuin-kontalari saioa. Kontu Kantoiren ostean, guraso eta ikasle taldeek haiek prestatutako ipuinez gozatu ahalko da.

Herritarren txokoa

Kilometroetara joateko autobusa
Ttakun Kultur elkarteak Hernaniko Dobera elkartearekin batera Bergaran, urriaren 2an antolatu den Kilometroak jaialdira joateko autobusa antolatu du.

Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Lasarte-Oriako Tajamar biribilguneko geltokitik. Bergaran 19:00etan izango da buelta.

Txartelak salgai daude Ttakun elkartearen. Prezioa 12 euroakoa da. Ttakuneko bazkideek, berriz, 10 euro ordaindu behar dituzte.

Neguko ordutegia kiroldegian
Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsaldez egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahalko dira gune ezberdinak, 9:00eta-

tik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Odol-ateratzea
Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetzte, odola ordezkatzeko da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatza
Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak herritarrek taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu.

Entseguak Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan 20:00etan. Abesbatzako kide izan nahi duten 15 eta 55 urte arteko herritarrek entseguetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaabesbatza.com helbidera idatz daiteke.

Hemeroteka

Duela 1231 ale


1998ko irailaren 25eko TXINTXARRI aldizkarian gaur egun oraindik lanean dabilen Gabriel Nogues jostunari elkarrizketa egin zitzaion. Orduan Gipuzkoan jostunen artean gazteenarikoa zen 47 urterekin eta bere ustez, lanbide galtzeko bidean zegoela zioen.

Gabrielen hitzetan, "lehen arropa neurrira besterik ez zen egiten. Sastreak herri guztietan zeuden. Piskanaka, jantzigintza iritsi zen eta lekua kendu zien".

Sastre lana kalitatearen sinonimo zela aipatu zuen, baita abantailak zituela ere. "Oihala norberaren gustura hautatzen da. Gainera, jantzigintzan egiten diren jantziak ez dute zabalduz gero jantzirik gabe".

Azpimarratzen zuen moduan, "Badira dendetan neurrira egindako arroparik bilatzen ez duten pertsonak eta horiek ez dira prestatutako desberdineko gorputzak. Hainbatzuk jostunaren lana baliagarria da oraindik ere".

Familiari buruz ere mintzo zen Gabriel. Birraitona Leridatik etorria zen eta Zelatunen zegoen karabinero lanetan. Ezkondu ostean, baserri baserri oihalak saltzen zituela adierazi zuen eta Lasarte-Orian geratu ziren. Aitak Bilbon jostun-lana ikasi eta herrian egin zuen lan.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



Haur, guraso eta irakasleak bildu ziren astelehenean ikastolako ikasgelen kokaleku ezberdinak bisitatzera.

Urrezko ezteiak ospatzen

Asteburuan ere, ekintza ugari izango dira Landaberriko 50. urteurrenaren egitarauan

Landaberri ikastolako kideak urteurrenako ospakizunetan murgildu dira. Ibilaldia, erakusketa, PechaKutxa aurkezpenak eta hitzaldia izan dira astean zehar. Bertso saio berezia, haurrentzako ekintzak, rock jaialdia... asteburu ederra daukate aurretik.

TXINTXARRI

Astelehenean Landaberri ikastolako kideak mende erdia ospatzen hasi ziren. Lehenik ikastolatan muralak ezarri zituzten. Arratsaldean, berriz, ikastolako ikasgela ezberdinetako kokalekuak bisitatu zituzten ikasle eta gurasoekin. Bidean euskal doinuak abestu zituzten trikiti eta panderoen laguntzaz.

Ostean, 'Landaberri, oroimenaren basoa' erakusketa ireki zen, Antonio Mercero aretoan.

Udal ordezkariak izan ziren lehenak erakusketari bisita egiten. Haur, heldu zein aitona-amonak ere hurbildu ziren lehen egun honetan.

50 urte hauetako argazkiak eta eskulanak biltzen dira erakusketa berezian.

Asteartean, ikastolako txikiak Porrotxen bisita izan zuten. Ederki gozatu zuten abesti eta dantekin.

Ikasle ohien esperientziak

Asteazkenean, Abend Kafe Antzokira hurbildu ziren herrita-

rrek PechaKutxa sistemaren bidez, 20 irudi bakoitza 20 segundutan, sei ikasle ohiren bizi esperientzia eta profesionala eza-gutu zuten.

Isabel Agirresarobe antzezleak, Eztiplotoko Ander Gartzandia eta Aitzol Etxegoien argazkilariek, Nora Izagirre moda disenatzaileak eta Gotzon Huegun eskultoreak aurkezpena eskaini zuten zuzenean. Unai Diego Txinako ORBEA enpresako komertziala ere izan zen ekitaldian bideo baten bidez. Ikusleek galderak egiteko aukera izan zuten.

Atzo, berriz, Kike Amonarriren solasaldia izan zen Villa Mirentxun.

'Lasarte-Oriako gurasoak: Biba zuek!' izenpean, gaur egun euskarak duen osasunari buruz mintzatu zen eta Lasarte-Oriako hainbat datu eskaini zituen.

Okendora atera

'Bertso berriak Landaberrin ibilitakoek jarriak' emanaldia dugu gaur, 22:00etan, Manuel Lekuanan.

Txikitako esperientziak azalerratuko ditu Landaberriko ikasle ohi talde batek. Musika eta antzerkia ere izango dira.

Bihar eta igandean kalera aterako dira ospakizunak.

Bihar, Andre Joakina Enean hasita, Usubil eta Lasarte-Orian zehar ikastolako eraikinak eta historia erreparatzeko ibilbidea egingo da.

Okendo plazan aldiz, goizean, haur jolasak, puzgarriak eta Xumelarekin Kantu Jira berezia izango dira; arratsaldean, Eriz magoaren magia ikuskizunak gozatu ahalko da.

Bertan, rock kontzertua izango da gaueko 22:00etatik aurrera.

Belaunaldien arteko Euskal Olinpiadak izango dira igande goizean Michelingo Kirol gunean. Joko ezberdinetan parte hartuko dute taldeek. Ostean, pintxo potea izango da Kirol Gunetik Okendora txarangak lagunduta.

Bazkariko txartelak

Bestalde, aurreko zenbakiko huts egitea zuzenduz, urriaren 1ean, Michelingo Kirol gunean bazkaria egingo da. Txartelak eskuragarri daude Landaberri ikastolako eraikinetan. Helduen menuak 25 euro balio ditu; haurrentzako, berriz, 13 euro. Salgai egongo dira osteguna 29ra arte.



Hainbat herritar eta gaztetxo hurbildu dira 'Landaberri, oroimenaren basoa' erakusketara.



Sei ikasle ohiak haien bizitza edo ibilbide profesionala azaldu zuten.



Kike Amonarrirek euskararen egoeraz eta Lasarte-Oriako kasuaz mintzatu zen atzo.

ERAIKI
EUSKADI
MIRA AL
FUTURO

URKULLU
LEHENDAKARI